

2: PROZESUA EBALUAZIO PSIKOLOGIKOAN

2.1. Ebaluazioaren helburuak

Sailkatu Nagusiki pertsonak sailkatzea (tratamenduak.. ere izan daitezke). Aldez aurretik jarritako sailkapen edo nosologiarekin konparatzen ditugu sintomak, bitartean, beste teknika batekin pertsonaren ezaugarriak hartzen gaude, ondoren, diagnostikatu egiten dugu. Etiketak jartzea izango litzake. Adibidez, nahaste bipolarra duen pertsona da edo ez da. Beste era batera esanda, erreferentea den sailkapena eskuan izanda, pertsona sailkatu egiten dugu.

Orientazioa egin Datuak eskuratzen ditugu eta irteera gisa eskaera egin duen pertsonari ahilkuak ematen dizkiogu. Hau da, nondik jo dezakeen esaten diogu. Adibidez, ikasketetan. Beste era batean, amaieran egindako/emandako aholkua da.

Hautaketa egin Adibidez, lanpostu baterako pertsonak hautatzea. Guk profila egiten dugu, pertsonak datoz, hautatik batzuk hautatzen ditugu eta enpresari honen berri ematen diogu. Hau da, dauden pertsonen artean, batzuk hautatzea litzake. Beste adibide bat: gaitasun altuko pertsonekin esperimendu bat egin nahi da, eta ondorioz, gaitasun altuko pertsonak aukeratu behar dira. Hala, profilarekin gehien bat egiten duten pertsonak hautatzen dira.

Tratamendua aplikatu edo aldaketa sortu Ebaluazio helburuaren eta esku-hartzearen artean mugan dago. Bertan, aldaketa sortu nahi da, desegoki kalifikatu den funtzioa edo jarrera detektatu eta aldatu nahi da. Esku-hartzea izango litzake. Identifikatu edo detektatu egiten da ondoren esku-hartzeko. Litekeena da guk ebaluazioa soilik egitea eta kolegek esku-hartzea.

2.2. PROZESUA IKUSPEGI KORRELAZIONALETIK

Ikuspegi korrelazionalan dauden urratsak. Bertan, aldagai batzuk daude, konstruktuko batzuk beste batzuekin erlazionatzen direnak.

1 Kasuari buruzko lehenengo informazioaren bilketa Lehenengoa: ez delako informazio lortzen den une bakarra.

2 Hipotesien formulazioa Buruan hipotesi batzuk ondoren kontrastatu egin behar ditugunak.

3 Hasierako erkaketa Hasierakoa da gero erkaketa gehiago egingo ditugulako.

4 Emaitzak: Hipotesia kontrastatzea helburuaren arabera. (Oraindik ez gaude esku-hartzea iten, gomendioak)

– deskribapena, sailkapena, auresatea, eta erabaki-hartzea

1.Kasuari buruzko lehenengo informazioaren bilketa

Eskaera zehaztu eta helburuak finkatu Informazio bildu aurretik eskaera bat dugu. Hor birformulazio bat egon daiteke, agian eskaera ez delako erreal. Helburua planteatzeko, nola birformulatu behar dugun pentsatu behar dugu.

– **Ebaluazioa eskatzearen kausa** Eskaera zergatik egiten duen jakin behar dugu, nondik sortzen den eskaera jakingo baitu. Kausa ikusiko dugu, horren oinarria, jatorria.

– **Zer lortu nahi da** Beraz, pertsonak nahi duena eta guk nahi duguna jakin behar dugu, pertsonaren eskera agian erreal ez delako.

– **Zeintzuk jokaera dira analisiaren objektua** Lehenengo kontaktuan, argi adierazi behar da helburua, zer egin dezakegun ikusteko. Ondoren, zein jokabide aztertuko dugun finkatuko dugu (ereduaren edo korrontearen arabera). Hau da, zertan fijatuko garen zehaztu behar dugu. Bezeroari gure lan egiteko era nolakoa den hasieratik esango zaio, gure korrontea zein den azalduko zaio.

Egungo ezaugarriak eta ezaugarri historikoak zehaztu: Datuak eskuraten hasten gara. Normalean elkarrizketa bat gauzatzen da beste teknika batzuekin batera. Egungo ezaugarri eta historikoak aztertzen dira, ereduaren arabera batak edo besteak izango du garrantzia gehiago. Hala ere, historia pixka bat beti egin beharko genuke. Normalean ez da lehenengo historia eta ondoren egungo egoera aztertzen edo alderantziz, atzera-aurrera baitabil etengabe.

– **a) Historia: SINKRONIA**

Jaiotza eta heziketa

Baldintza familiar (bilakaera gehiago) **eta sozialak** (lanetik kanpo). Testuinguru familiarra kontuan hartzen da, genograma. Ez oraingo familia, lehengoa baizik.

Hezkuntzako ezaugarriak (laneko ezaugarriak) Adinaren arabera.

Baldintza biologikoak (hala badagokio) Arazo batzuetan garrantzia handia hartzen du. Haur txiki batean errendimendu arazok biologiarekin zerikusi gehiago izaten dute. 30 urterekin ez du horrelako garrantzirik izaten, biologikoa den kasuetan lehenago agertzen baita.

Bizitzako gertakari historikoak Mugarriak (etxetik noiz joan zen, dibortziaturik dagoen..).

– **b) Egungo baldintzak (sozio-ambientalak + biologikoak): DIAKRONIA**

Gaur egun gertatzen ari dena.

Habitat (hiria/herria); Testuinguruko ezaugarriak.

Baldintza familiarrak, sozialak eta ekonomikoak Orain nola dauden

Egungo bizitzako gertakariak

Lanbidea

Bizitza-estiloak

Egoera fisikoa eta osasun egoera

2.Hipotesien formulazioa

“Kasuari buruzko teoria”: Egiten dugun pelikula eskaera harekiko. Kasuko informazioa gure ezagutzarekin batzen dugu (etengabeko formazioa). Kasu bakoitza bakarra dela gogoratu behar da.

– **Bildutako datuak** (datu errealak aurrean dugunetik, kasuari buruzko informazioa) + **lege orokorren ezagutza** (guk dakiguna).

Ebaluatzailearen ezagutza (lege orokorraren ezagutza): Guk aportatzen duguna. Bildutako datuekin osatzen ditugu aurre-jakintzak.

– **funtzio psikologikoak, erantzun moten kobariazioak** (ze aldagai dauden loturik), **jokabideen oinarri fisiologiko eta neurologikoak, ingurune aldagaien papera,...**

4 planteamendu mota:

– **Kuantifikazioa (O, H)** Hipotesiek aldagai baten kuantifikazioa nahi dute. Hau da, zerbait gertatzea maila jakin batean (zein mailatan gertatzen den) edo zenbat gertatzen den. Hemen pertsona. Adibidez: zenbateko beldurra dion txakurrari subjektuak. *Orientatu* eta *Hautatzea* bilatzen da

– **Antzekotasuna (S)** Sailkapen bat egitea denean gure helburua, nosologia edo bestelako taxonomian, antzekotasun hipotesi bat egiten ari gara. Gure kasuko ezaugarriak sailkapenekoan antzekoan dira? (hori aztertzen dugu). *Sailkapena* egiteko.

– **Aurresate loturak (O, H; T)** Aldagai bat eta bestean zer gertatzen den esateko. Hau da, aldagai bat azaltzean ziurrenik beste aldagai bateko puntuazio baxuak edo altuak izango dira. Despertsonalizazio bat egiten du pertsona. Adibidez: lanean estresatua dagoenean, erreta egotea → gatazka. *Orientazio, hautatze eta tratamendua* aplikatzeko.

– **Erlazio funtzionala edo azalpeneko erlazioa (T)** Kausa-efektua. Aldagai askean menpeko aldagaia sortzen du, badakigu batek bestea eragiten duela. Kausan eraginda, ondorioa aldatu dezakegu. *Tratamendua*.

Helburuaren arabera hipotesi bat edo beste erabiliko da.

Baieztapen kontrastagarriak:

Hipotesiak egitean erratu egin gaitzke edo zuzen egon. Datuek gure hipotesia ezeztatzen badute, beste hipotesi bat planteatu beharko dugu. Hipotesiak eratzen dira modu kontrastagarrian.

– **Analisirako aldagaien hautaketa**

– **Teknika zehatzen eta prozeduraren hautaketa**

3. Hasierako erkaketa

Behin konprobatu daitezkeen aldagai askea eta neurtutako menpeko aldagaia aukeratzen ditugunean egiten da konparazio hori. Ziur dakigunean bide onetik goazela.

Tekniken aplikazioa ezarritako prozeduraren arabera Teknikak aukeratu → aplikatu → hipotesiak egiazkoak diren ikusi. Berdinak ez badira, berregin.

Emaitzen analisisa Hipotesiak kontrastatu

4. Emaitzak: deskribapena, sailkapena, auresatea, eta erabaki auresatea, eta erabaki-hartzea hartzea

Txostena egin: Pertsonari zer gertatzen zaion dakigunean itzulera egiten dugu txosten baten bidez. Txostena aurreko helburura bueltatuz egiten dugu. Datuez gain, nolabaiteko ondorioa ematen dugu, aholkua adibidez. Azken hau eskaeraren arabera izango da. Hau da, helburuaren galderari erantzun behar diogu. Idatziz eta ahoz aho azaldu behar da (parte teknikoa eta ulergarria izaten ditu).

– **Ebaluazioaren helbururen arabera** Azken gomendioa helburuaren arabera da.

2.3. PROZESUA IKUSPEGI ESPERIMENTALETIK

9 aldi ditu 4 berdin + 5 berri.

Lehenengo 4ak ikuspegi korrelazionalen bezala Hauek esku-hartze bat egitea nahi dute eta funtzionamendu desegokia zerk sortzen duen jakin nahi du.

1. Kasuari buruzko lehenengo informazioaren bilketa: (eskaera eta birformulazioa)

– **Arazoaren eskaera zehaztea**

2. Hipotesien lehen formulazioa: (konparagarriak izan behar dute)

– **Egiaztagarriak diren baieztapenen dedukzioa**

3. Hasierako erkaketa (konparaketa, hipotesiak eta datuak)

4. Hasierako emaitzak

5.Hipotesi funtzionalen formulazioa (Hipotesi hauek kausa/ondorio izan behar dute, arazoa zerk sortu duen dakigu).

6.Tratamendua:

Gabezia bat dagoela ikusi da eta esku-hartzea egin nahi dugu. Arazoak ikusita honen esku-hartzea egin eta egokia den portaera sustatzea nahi da.

– **Hipotesien inguruko datu bilketa, eta tratamenduaren aplikazioa**

7.Hipotesien erkaketa eta tratamenduaren balorazioa Eta berriz ere, hipotesien konparaketa eta tratamendua eraginkorra noraino izan den aztertzen da.

8.Emaidzak

9.Jarraipena Jarraipena egiten da ahal den heinean. Azken hau aldi ideala/abstraktuena da. Praktikan gutxitan egiten da.

5.Hipotesien funtzionalen formulazioa

Azalpeneko planteamendu funtzionalak egin:

– **Aldatu beharreko aldagaiek hautaketa**

– **Kontrastagarriak diren auresateen dedukzioa**

3 eginbehar: Gure hipotesiaren arabera aldagai askeek sortzen dute menpeko aldagaia.

– **Menpeko aldagaien neurketarako mekanismoak ezarri** Menpeko aldagaia nola neurtuko dugun planteatu. Eskala

– **Aldagai askeen hautaketa eta neurketa** galdesortak eta behaketak erabiliko dira. Nola manipulatu dugun zehaztu.

– **Aldagai askeen manipulazioko teknika (tratamendua) hautatu**

Adibidez:

AA → MA

Lan-giroa (pertsonarteko gatazka maila, intzentiboa) → despertsonalizazioa

Zer egin honekin jakinda kausa/ondorioa dela. Pertsonarteko gatazka murriztu eta intzentiboa handitu. Nagusiari aholkuak eman hori egiteko.

6.Tratamendua

Esku-hartze psikologikoa subjektuaren aktibitate psikologikoa aldatzeko

Ezarri behar da:

- **Hipotesien kontrasterako esku-hartzearen diseinua**
- **Balitzko aldagai kutsatzaileen ebaluaziorako tekniken hautaketa eta aplikazioa**
- **Batzuetan, tratamenduaren aurrerapenerako etengabeko ebaluazioa**

7. Hipotesien erkaketa eta tratamenduaren balorazioa

Jokabide arazotsuen ebaluazio berria: helburu terapeutikoak bete dira? Ez badira betetzen, esku-hartze berria egiten da. Agian aldagai askeak ez ziren egokiak edo gure esku-hartzeak ez du ondo eragiten aldagai askean.

Datuek hipotesiak konfirmatzen dituzte? (ebaluatuari esateko)

Tratamendua eraginkorra izan da? Emaidza kualitatibo eta kuantitatiboak.

8. Emaidzak (txostena)

Ebaluatuei edo ingurukoei (epaitegia, helduek haurra ekarri, tutoreak..).

Nola? Bietara egiten dira.

– Ahoz

– **Idatziz** Etorkizunera begira psikologoek berriro kontsultatu ditzakete, horregatik oso garrantzitsua da.

9. Jarraipena

Berriro ebaluatzea aurretik ebaluatutako aldagaiak aldaketa eragiten zutenak.

Ebaluazio berria denboraldi batera Batzuetan ez da posible izaten, ez gaituelako behar eta ondorioz, ez dator.

– Kontaktu berria

Emaidzak mantentzen dira? Emaidzak mantentzen diren jakingo genuke eta ez badira mantentzen gure esku-hartzea aldatu behar dugu.

*Bideoa→ Jose (familia, honek deitu) eta Pilar (ebaluatua); -60 urte-30 urtekin alragun-semerik ez- guraosekin bizii zan hauek hil arte-estanko baten lan...(iraganak ondo egon beharko luke) ORAIN→ Oroimen arazok, mendekotasun funtzionala, ezin lana in...→ Proba batzuk eginaraziko/Familiaren ekarpenak beharrezkoak (Joseri galdetegi bera, kontrastatzeko).

2.4. PROZESUAN ERAGITEN DUTEN ALDAGAIK

1.Ebaluatzailearen inguruko aldagaiak

Ebaluatzailearen igurikapenak Igurikapenak konplexuenak dira. Beti joaten gara kasuetara igurikapen batzuekin, lan-hipotesiak egiten dira datuak jaso bitartean eta batzuetan aurreratu egiten gara, kasu batzuetan arrazoirik ez dugularik. Hipotesiak formulatzean berak esandakoa eta nire informazioa erabiltzen dut. Hori egiteko, pentsatu eta aurreratu egin behar gara, baina batzuetan bide batetik joaten tematzen gara eta bide hila da. Zaila izaten da hau detektatzea. Hori ekiditeko: analisisan egitean beste kide batzuen superbisioa erabili (kanpotik beste ikuspegi bat emango digute), batez ere klinikan.

Ahozko eta ez-ahozko komunikazioaren baldintzapena Ez gara ordenagailuak, pertsonak gara. Gu era jakin baten komunikatzen gara eta horrek inhibitu edo lagundu egin dezake beste pertsonak erantzutea. Rapporta sortu behar da, harreman profesionala baina konfiantzarekin. Komunikatzen garenean tonu fuer/suabeak, irribarre egiteak, eskuak mugitzeak... eragina dute.

Ebaluatzailea egotea ala ez Agian beste norbaiti esaten diogu behatzeko edo erregistro batzuk egiteko, gu bertan egon gabe. Batzuetan bezeroa presiorik gabe egotea ez da errelebantea nortasuna ebaluatzeke adibidez (baita irudimena). Kognizioa ebaluatzean hobeto da presioa egotea, ebaluatzailea bertan egotea, horrela emaitza hobekiak lortzen dira, positiboagoa da. Nortasunean berdin da, nerabeekin presente egotea hobeto da.

Bereizlaritza edo trebakuntza maila Elkarrizketa egituratu/erdi-egituratuek eta behaketa sistematikoek ere hala beharrez zertifikazioa behar dute. Profesionala izan behar duzu, trebakuntza maila bat izan behar duzu. Teknika proaktiboek urteetako prestakuntza eskatzen dute, sakonean duen teoria guztia ezagutu behar da. Ebaluatzailea guztiz trebatua izan behar da. Hala ere, ebaluatzen bakarrik jakitea ez da oso lojiko, gero tratamendua jartzen ere jakin ber.

Ebaluatzailearen ezaugarri fisiko eta psikologikoak Hemen sar genezake ahozko komunikazioa.

– **Zaindari jarrera** Taldekako aplikazioan ebaluatzaileak duen zaindari jarrerak inhibitu egin dezake, pertsona mehatxatuak senti daiteke.

– **Nortasuna** Nola transmititzen gara.

– **Aurreiritziak**

– **Sexua** Gu gion edo emakumeak gara. Ez dago hori ekiditerik eta horrek asko baldintzatu dezake. Adarrak gertatu badira, gizon edo emakume bati (bere sexuko berdinari) errazago kontatuko dio. Eliteko kirolariak ebaluatzeke zailtasunak dituzte emakume psikologoek.

– **Kanpo itxura** Populazio batzuekin modu jakin batean jantzi behar duzu. Gaztetasuna oztopo bat izan daiteke, beraz, formalago joan. Eztatanda dago honen inguruan, aurreiritziak direla tarteko. Jazkera klasikoa, arreka ebaluatzailean jartzeko eta ez bere arropan.

2.Ebaluatuaren inguruko aldagaiak Beraien ezaugarriak

Azterketarako motibazioa Pertsonak duen motibazio maila. Datuak eskuratzen hasi aurretik honek duen motibazio maila zein den ikusi behar da. Hasteko motibaziorik ez duela ikusten bada, lehenik eta behin honen motibazioa areagotu behar da. Adibidez, beharturik joan diren pertsonak ez dute motibaziorik izaten.

Ebaluazioko aurretiko esperientziak Ebaluatua beste psikologo batzuetatik pasa bada nolako esperientzia izan duen jakin behar da. Fallatu egin badute berarekin, ez du guztiz sinetsiko egiten ari zarena. Horrez gain, zenbait esku-hartze probatu dira funtzionatu ez dutenak eta guk horien berri izan behar dugu hauek ez erabiltzeko.

Adimen-testa bi aldiz pasatzen bazaio erantzunak oroitu ditzake eta ondorioz, ez du balioko. Holakoen aurrean, konstruktua bera ebaluatzeko beste teknika bat erabiltzen da.

Hizkuntza Bere ama-hizkuntza ez bada agian zailtasunak azaltzen ditu pertsonak. Batez ere, egindako testetan galdera-erantzunak idatziak badira. Beste kasu batzuetan, erregistro txikia du. Hau da, ez da eskolarizatua izan eta hitz batzuk ez ditu behar bezala ulertzen. Hizkuntza garrantzitsua den teknikan ikusi behar duzu berak maila hori duen, hau da, hizkuntza egokia dela ziurtatu behar da.


Gizarte desiragarritasuna Sozialki desiragarria den horretan bere irudia zehaztea. Kontziente ez bada ere, irudi bat eman dezake pertsonak. Ez zen bere identitatea izango. Beste batzuk, nortasun-ezaugarritzat hartzen dute honakoa. Soslaitzat hartuko dugu eta kontrolatu egin behar da. Izango genukeen emaitzak ez luke bere nortasuna adieraziko. Hemen puntuazio altua dutenekin, galdesorta baino elkarrizketa edo behaketa erabiltzea litzake hobeto.

Ebaluatuaren ezaugarri fisiko eta psikologikoak

– Nortasuna: extrabertsioa eta neurotizismoa

– Sexua

– **Adina** Adina garrantzitsua da, haur edo nerabeekin gaudenean. Guri ziria sartzen saiatzen dira nahastu egin nahi gaituztelako. Nerabeentzako eskaletan beti sartuko dugu benetan erantzuten ari diren jakitek eskala bat (adibidez, ez dut inoiz begi marroiak dituen pertsona bat ikusi). Motibazioa areagotzeko eta ez aspertzeko edo nekatzeko, hurrekin zeharka egiten dira galderak, test proiektiboak, marrazkiak dituztenak. Corman-en test, “hanka beltza” (honekin ziurrago sentitzen dira).



3.Egoeraren inguruko aldagaiak Kontestu eta teknika

Ebaluazioko ingurune fisikoa Ingurune fisikoan beharrezko diren baldintzak ez direlako betetzen. Adibidez: azterketa argi gutxirekin egitea. Kasu horretan, esfortzu berezia egin behar da eta agian 2 ordu horietan ez da benetan islatzen gure errendimendua.

Aplikaturiko teknika mota Teknika guztiek abantailak eta desabantailak dituzte. Oso ondo aukeratu behar da dagokien kasurako. Gizarte desiragarritasuna ekiditeko hobe da elkarrizketa galdesorta baino esaterako. Galdetegian ondoren elkarrizketa sakonagoa.

Ebaluazioa burutzen deneko testuinguru instituzionala Askatasunik gabeko pertsona. Adibidez, espetxean egiten badugu. Hobe da pertsona kontsultara joatea baina kasu batzuetan guk ezin dugu erabaki.

GALDERA → ALDIAK IDENTIFIKATZEN JAKITIA.